**KULTURA "OSKORRI & THE PUB IBILTARIA 8" IKUSKIZUNA MAIATZAREN 14AN**

**GEHIGARRIA TXIKIBARREN · KIROLA JOSEBA IGARTUA HAUNDIKO JOKALARIARI ELKARRIZKETA**

# BARREN
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko maiatzaren 7a/XII. urtea/487. zkia



JUAN BRUNO, JUBILATU ZENETIK ESKULANETAN

## Elgoibarko haize errota bitxienak

# BASKO RENT

## GARBIKETA • MANTENIMENDUA • AUTOEN ALOKAIRUA

## MANTENDU EZAZU ZURE AUTO GARBI eta PREST.




## ESKAINTZA BEREZIA:

**PNEUMATIKOAK 4 X 3- 3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU**

1

**GARBIKETA AUTOMATIKO PUBLIKOA**



**ESKUZ EGINIKO GARB I KETA**





### HORREZ GAIN:

Olioaren edo filtroen aldakEta
PnEumatikoEn aztErkEta Eta aldaketa
BalaztEn EtE EsEkidurarEn aztErketa
MantEnimendu orokorra

## SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE

**7 eta 8 pabilioiak - Elgoibar**

**fer 902 103 287**

MICHELIN rtrestone GOODYEAR

2004-V-7



## Etxean gertatzen denari erreparatzea bezalakorik ez dago

Tortura: zigor gisa edo aitorpen bat lortzeko, hainbat tresna eta bide erabiliz pertsona bati eragiten zaion min fisiko edo psikologiko larria. Min: oinaze, kalte, lesio, atsekabe, sufrimendu, pairakuntza... Hamaika hitz eta sinonimo erabili daitezke tortura zer den zehazteko... baina hain huts gelditzen zaizkit guztiak, barrenak nahasten dizkidan sentipen hau adierazteko...

Irakiarrei egindako torturen irudiak ikusteak hotzikarak sortzen dizkit: bortxaketa, kolpe, era guztietako umiliazioak egin eta gainera argazkiak ateratzeko odol hotza dutenak burutik sano ez daudela iruditzen zait. Baina ez dut guztiak burutik jota daudenik uste, arrazoia beste nonbaiten aurkitzen dut nik: boterea dutenei beren ekintzek ez kontrolik ez eta zigorrik izango ez dutela jakiteak krudelkeria ilunenak egiteko ateak irekitzen dizkie. Ziur naiz horretaz.

Irakiarren argazkiak telebista eta egunkarietan. Bitartean, bere burua salatu eta urte bi kartzelan pasa ostean kargurik gabe aske utzitako Ainhoa Gorostiagaren tortura salaketak epaileak "froga eskasiagatik" artxibatu egin ditu. Polizia haiek lasai asko ibiliko dira gaur kaletik... eta horrek, benetan, goragalea eragiten dit. Ikaratzekoa da, Arkauten 5 egunez inkomunikatuta pasatu zituen nire lagun batek kontatzen duena... amets gaiztorik ankerrena baino txarragoa da, izoztuta uzten zaitu. Bere ama hila zela esatera ere iritsi ziren... pentsa. Ez dago Irakera joan beharrik beraz pandoraren kaxa irekita dagoela ikusteko, eta ixtea, arduradun politikoen esku dagoela jakiteko.

Lorea Perez de Albeniz



## Berritu ala zulora

Bi benik gogoetarako gunea eskaini didate:

Pilaffaren iraupenak alaitu nau, horra hor erronka guraso eta irakasleentzat, derrigorrezko aukera aparta ikasleen prestakuntzan haize berriei ongi etorria emateko. Industria mailan "erne" da burura etorri zaidan hitza, AFMko (makina erremintaren fabrikatzaileen elkartea) azken asanbladan entzundakoaren ondoren. Hiru puntu nabarmendu ziren: atzerrian ikastetxe tekniko berriak sortu, "erein uzta jasotzeko", hau da, bezeroa zure lan ereduetara "ohitu", honela, ondoren "eskatu" egingo du. ikerkuntza, garapena eta berritzeko ekintzetan alegia, inbertsioa areagotu eta nazioarteko azoka garrantzitsuenetan parte hartzen jarraitu.

Bai hezkuntzan eta baita lan-munduak ere, berritu ala zulora, denon esku dago aizkora zorroztea mozten jarraitu ahal izateko. Lan asko egiteak ez du balio itxuraz, buruarekin egin behar dugu lan, orain artean erabilitako ereduak berritu behar ditugu, gauza ezberdinak eskaini eta eskatzen duenari bere arazoaren irtenbideak aurkitu, aukera berriak emanaz.

Naturan nabaria dena gizakiaren egunerokoan ere dager: biziraupen hutsa. Berritu, prest egon, gure burua prestatu, bilakaera pilpilean gure begien aurrean. Azken mendeetan gutxi batzuk asmatu eta besteak jarraitu egiten zuten; egun gutako bakoitzak pentsatu beharra daukagu, lanean ere hori eskatzen digute, gure ezagutzak berritu, lehiakideen martxa jarraitu ahal izateko. Naturaz ordea, denok gara patxadazaleak, "nik nahikoa ikasi nuen gaztetan, utz nazatela bakean orain..." pentsakera honen joera badugu. Beraz, txikitatik ohitu beharko gara erritmoa ez galtzen, irakasleek horretarako tresnak eta metodoak erabiltzen lagunduko digute. Anderefto-maisuak ez dira transmisore hutsak, laguntzaileak baizik: egun medio anitz dago ezagutza lortzeko, baina ezagutza hori nola lortu jakin ahal izateko entrenatzaileak ditugu irakasleak. Horrela bada, txikitatik ohituta, ez du ahalegin handirik suposatuko heldutasunean erne jarraitzeak. Erronka bikaina irakasleentzat, ezagutzaren aroari aurre egiteko guztiz beharrezkoa, alegia.

Edurne Bilbao

Kexak ............................................. 5

MOtZ MOtZ ............................................. 8

gehigarria ............................................. 13

kiROlAk ............................................. 20

## HERRITARREN ZERRENDA EUROPARA!!

Ezkerreko abertzaleen talde batek Europako Hauteskundeetarako nazio rnailako herri kandidatura bat bultzatu du.

- Kandidatura honen izaera: abertzalea, ezkertzalea, nazionala (7 probintzietan), eta herritarra, hau da, herri mugimenduetan aritzen diren pertsonek osatua.

- Bere oinarri ideologikoa Independentzia helburu, Autodeterminazio eskubidea aldarrikatuz, Lizarra Garazi hitzarmenaren filosofia edota Bergarako Proposamena bezalako plantearnenduen bitartez, ezkertiarrak, aurrerakoiak eta abertzaleak biltzea bultzatzea da. Ikuspuntu sozialetik, Europako eraikuntzaren prozesua zein konstituzioaren edukien kontra posizio gardena izango du, beste Europa bat posiblea dela defendatuz. Horretarako, zenbait sektoreekin harremanak burutu dituzte ahalik eta herritar eta sektore gehienen partehartzea ahalbideratzeko.

Zerrenda Euskal Heniko 7 lurraldeetan aurkeztuko da, baina Lapurdin, Zuberoan eta Behe Nafarroan arazorik ez dagoen bitartean, Hegoaldeko beste lau herrialdeetan espainiar legeak SINADURAK BILTZEA eskatzen du. Horretarako azken eguna larunbat honetan, hilak 8, eguerdiko 14.00ak arte Udaletxean duzu aukera.

Larunbat honetan ere, arratsaldeko 6etan Donostiako Kursaalean Kandidaturaren AURKEZPEN NAZIONALA egingo da eta ostegunerako, hilak 13, 19:30ean "EUSKAL HERRIA EUROPAN" izeneko HITZALDI bat antolatu dugu Kultur Etxean. Gonbidatuta zaude.

**J.Karlos Markos**
**EHNA: A5551084B**

## Xl. JOSE GURRUTXAGA HAUR KROSA

Ikastolaren izenean eskerrak eman nahi dizkiegu joan den igandean ospatutako XI. JOSE GURRUTXAGA HAUR KROSA antolatzen lagundu diguten guztiei, Elgoibarko UdaIa, Udal Kirol Patronatua, Egotoki Elkartea, Cermicas Anchustegui, Netto, Alzolako Urak, Eroski, Etxekit, Lanbroa kafetegia, Ituffi taberna, Jai AIai taberna, Urrategi elektrogailuak, E1 Diario Vasco, Goki errefonnak, King-Kong kafetegia, Uzuri optika, Calzados Osoro, Gabi jatetxea, Orbea jatetxea, Castrillejo estankoa, Muruamendiaraz gozotegia, Aterpe tabema, Xigortze oparidenda, Garate jantzidenda, Iriondo Kirolak, Untobitza aseguruak, Mekanosa, Urkiola taberna, Bilbao Express bidaiak, Salegi gozotegia, Halcon bidaiak, Harzubi jatetxea, Usua taberna, Eroski bidaiak, Idarraga kafeak, Lete jantzidenda, Txiriboga tabema, Vmos Julio Bueno, Julene poltsa eta osagarri-denda, Fadek ileapaindegia, Joggers kirol arropa, Gorostiza Iibumdenda, Ecuador bidaiak, Azkue argazkiak, Iriondo taberna, Telepizza, Mintxeta Atletismo Taldea, Opel Giauto, Hyundai Mendaro Autoak, Gurutze Gorria eta batez ere babeslea izan den KUTXAri. Baita parte hartu duten neska-mutilei ere.

Datorren urteko edizioan ere, apirilaren I7an, laguntzeko prest egongo zaretelakoan, agur bero bat.

**Elgoibar Ikastola**

# Urruzunoren begi ezkutua

## Arkimedesen printzipioa



Ostiral hartan ere, etxera iritsi zenean, hiztegia eta boligrafo gorria hartu zituen neskak. Arkimedes hitza azpimarratu zuen. Ohitura zuen hitz bat entzun eta sistematikoki norbaitekin gogoratzen bazen, hitz hori hiztegian azpimarratzeko. Gorria Jonen kolorea zen. Gorriz azpimarratzen zituen gogoa Jonengana eramaten zioten hitzak, eta bazekien egun hartatik aurrera "Arkimedes" entzun orduko berak zuzenean "Jon" pentsatuko zuela. Horregatik azpimarratu zuen: handik aurrera Arkimedes Jon izango zelako. Sinplea zen jokoa.

Batzuetan, neskak, oraindik konkistatu gabeko hitz batzuk gorriz azpimarratzearekin amets egiten zuen... bestetan, kolore urdin eta berdeei begira bere bizitza gorriegi bilakatzearen beldur izaten zen... Emeki-emeki hiztegiko orriak pasaz joan zen neska, gorriz azpimarratuta zeuzkan gainontzeko hitzak errepasatuz: arnas, begi, bero, Bilbo, esku, ezpain, hotz, hotzikara, izerdi, kanpin-denda, karpa, tnaindire, mihi, ohe, ostegun.

Uneak, lekuak, zirrarak eta gorputz atalak. Non? Noiz? NoIa?, galdetzen zioten elkarri astero. Nik zuri? Zuk niri? Eta batzuek, berena azaleko harremana zela esaten zioten neskari. Baina hark, serio, azalekoa ezetz; azalezkoa izango zela izatekotan. Berena Arkimedesen printzipioa zen: gorputzen flotatzeko gaitasuna.

**Uxue Alberdi**

ASTEKARIA
**BaRRen**

Nalarroa enparantza, 2
208711 ELGOIEIAR
e" 943 74 41 12
Pubbitatea:
1r 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta: barren@topaguneacom
Helblde informatikoa:
www.topagunea.comlbarren
ARGRARATZAILEA
Elgobarko [zona

LAGurzalla Elgoibanko Udala KOORDIFIATIALEA Ainhda Andonegii Zumemaa Asier Orbea PUDLIZTIATEA Arnaia Erkiz[a MAKETATZAILEA Jaiono UnarlUE. GERERTE1A Jon Peli Uriguen KOLABORATZAILEAK Jasone Osoro, Ainhca Ladoso, Nestor Fuenle, Pello Mendizabal, Edurne GOtzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokce K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO ESAERA ZAHARRA Golzon Garateren liburulik INPRIMATEGLA Gertu Koop. TIRADA 4.175 ale LEGE GOROMLUA 55-1.036/92 ISSN 1139-1855

ELGOItARKOLZARRA

*Elgoibarko Udalak, Eusko Taurlarkzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

xic kutxa
1DANOBAT
5>GOITI
GRUPO DANDBAT
ESLOTA

## 11111111

Guraso talde batek esan digunez, **herrian oso parke gutxi dago, eta bada Madalako parkea lehen zegoen moduan jartzeko garaia: "Elgoibarren** oso leku gutxi daude umeek jolasteko, eta dauden apurrak kendu egiten dituzte. Usoako parkea leku aproposa zen jolasean ibiltzeko, baina ajedrez handia kendu eta mahaiak jarri dituzte. Madalan, obrak egiteko parkea kendu zuten, eta oraindik ez dute jarri. Parkeak beharrezkoak direla uste dut".





• Gizon batek esan digunez, **Plaza Txikian kotxe mordoa gaizki aparkatuta egoten dira, eta ez dute multaril edukitzen:** "Badalcigu herrian leku gutxi dagoela aparkatzeko, baina Plaza Txikian kotxearekin pasatzeko arazoak izaten dira, kotxe mordoa gaizki aparkatuta egoten direlako. Beste leku batzuetan udaltzainek berehala jartzen dute multa, baina hemen ez. Ez al da delitu bera auzoetan, edota Plaza Txikian gaizki aparkatzea? Multak ere modu berean jarri behar direla uste dut, denetan, edo baten ere ez".

O Herritar batek azaldu digunez, **Elgoibarko polikiroldegira edo hertako kafetegira haurren kotxearekin joan nahi dutenek, arazo handia daukate bertara iristeko: "Sarreran** dauden eskailerak oso maldatsuak eta arriskutsuak dira, eta beste norbaitek laguntzen ez bazaitu, ezin daiteke igo. Uste dut badagoela igogailuren bat polikiroldegian, baina horrela bada, bertako zerbitzuez aprobetxatu nahi dugunontzat eskura egon beharko litzatekeela iruditzen zait. Ez al da posible herritarrentzat igogailu publiko bat edo bere ordez sarrerako eskaileren alboan malda bat jartzea?"

## TXALOAK

Herritar batzuk **Josu Mujika dantzaria txalotu nahi dute,** apirilaren 30ean Herriko Antzokian eskainitako ikuskizun ederragatik: "Dantzaldi polita izan zen benetan, ikusgarria. Zorionak Josu!".

Barrak, Birrak eta Barreak





# Elgolbarku al

*Jubilatu ostean asko dira denbora zerian eman jakiten ez dutenak. Bizitza guztia lanean pasa eta gero, hainbeste denbora bre edukitzea arazo bihurtzen da askorentzat. Beste batzuk ordea, berehala bilatzen dute denbora hori betetzeko moduren bat. Gaurkoan, bere denbora librea haize errotak egiten pasaizen duen gizonezko batekin egon gara. Jubilatu zenean denbora pasaizeko modu desberdinak aurkitu zituen. Gaur egun, bere etxeko lorategian dauka lan tokia, eta eguraldi ona egiten duenean, bertan pasaizen du eguneko denbora gehiena haize errotak egiten. Hala ere, beste zaletasun batzuk ere izan dituela kontatu digu. Ikus dezagun, beraz, jubilatu ostean zer egin daitekeen...*

## JUBILATU OSTEAN, ZALETASUN BILA

Juan Brunok 66 urte ditu, eta dagoeneko, 11 urte daramatza jubilatuta. Ajustatzaile lanetan ibilitakoa dugu bera, Makina Erremintaren munduan lanean aritutakoa. Beti ere, eskuak izan dira bere lan tresna nagusia. Jubilatu zenean, entretenimenduren bat bilatu behar zuela erabaki zuen. Denbora libre ugari zeukan, eta nolabait, denbora hori aprobetxatu nahi zuen.

Hasieran arrainak hazten hasi zen. 9 arrain ontzi handi ipini zituen etxean. Ur hotzekoak eta ur berokoak. Arrain mordoa zeuzkan etxean, eta hasieratik bukaerara bizi izaten zituen bere arraintxoen ugaltze prozesua. Liburu desberdinak erosi zituen, eta arrainen inguruko informazio ugari bereganatu zuen. Izugarri gustatzen zitzaion mundu hura: "Ikusgarria zen. Arrain batzuek egun batetik bestera sexua aldatzen zuten, egun batean arra zena, hurrengoan emea zen eta arraintxoak izaten zituen". Bitxikeria mordoa bizi izandakoa da arrainekin, baina esan digunez, zaletasun oso garestia zen: "Arrain ontzi guztiak entxufatuta eduki behar izaten nituen, eta elektrizitate asko behar zuten. Argiaren fakturak ikaragarriak izaten ziren". Arrainak saltzea ere pentsatu zuen, baina oso gutxi ordaintzen ziotela kontatu digu: "Lagunei ezin nien arrainik kobratu, bestela lagun txarra nintzen. Dendetara saltzen hasi nintzen, baina oso gutxi ordaintzen zuten. Ez zidan batere konpentsatzen".





# ze errota ezelaglawnak

## HAIZE ERROTAH

Arrain guztiak kendu ostean, denbora pasa merkeago baten bila hasi zen Juan Bruno. Gaztetan zeukan zaletasun batetatik abiatuta haize errotak egiten hasi zen. Umetan kanaberaz egiten zituen, eta oraingoan, egurrez egiten hasi zen. Berehala konturatu zen, ordea, egurra ez zela materialik aproposena, hemengo eguraldiarekin berehala usteltzen baitzen.



Zabortegi aldean pasiatzen ari zela, ume baten kotxe zahar bat aurkitu zuen. Aulkiaren errubera haize errotak egiteko egokia izan zitekeela iruditu zitzaion, eta etxera eraman zuen. Zuloak egin, txapa batzuk moztu, eta etxeko lorategian zintzilikatu zuen. Lehenengo haize errota eginda zeukan.

## HAIZE ERROTAN EGITENO PROZESUA

Juan Brunok esan digunez, hiru egun inguru behar izaten ditu errota bat egiteko. Hala ere, inongo presarik gabe egiten dituela kontatu digu: "goizetan pasiatzera joaten naiz, eta bazkal ostean, lorategian jarrita egiten ditut errotak". Etxeko lorategian lau errota dauzka. Itxura antzerakoa dute guztiek, batzuk handiagoak, besteak txikiagoak, baina prozesua berdina da. Berak azaldu digu dena: "Lehenengo materiala bilatu behar da. Umeen kotxeen erruberak, edo bizikletenak dira egokienak. Bestalde, obren kontenedoreetatik txapa zatiak jasotzen ditut. Ondoren, errubera zulatu, eta txapa moztuta, zuloetan jartzen da, torniloekin lotuta".

Haize errota bakoitzaren gainean, hegazkin bat jartzen du: "Plastiko zati batekin, oso erraza da hegazkin bat egitea. Plastikoa moztu, eta txaparekin helizeak egiten dizkiot. Haize errota gainean jarrita, benetan hegan egiten dutela dirudi".

## HAIZE ERROTA INTERNAZIONALAN

Juan Brunok lau haize errota dauzka bere lorategian, eta dagoeneko, ez dauka gehiago jartzeko lekurik. Hala ere, gehiago egin dituela kontatu digu, baina oparitu egin ditu: "Extremadurakoak gara, eta bertako senideei eman dizkiet batzuk, beste batzuk lagunei. Portuges batek mordo bat eskatu zizkidan, berak ez dit ezer ere ordaintzen, baina gero bere herrian saldu egiten ditu. Nire kontura negozioa egiten dute batzuk".

Errotak egitea arrainak haztea baino merkeagoa den arren, etektrizitate dezente gastatzen duela kontatu digu Juan Brunok: "Zerra elektrikoa erabiltzen dut txapa mozteko, eta horrek argi asko jaten du". Hori dela eta, tipo frantses bati haize errotak kobratu egin zizkiola kontatu digu: "Uda batean tipo frantses bat agertu zen hemen, eta nire haize errotak gustatu zitzaizkion. Ea zenbatean salduko nizkion galdetu zidan, eta bost euro eskatu nizkion. Ez dut honekin dirurik irabazteko asmorik, elektrizitatean gastatutakoa soilik eskatu nion".

Neguan hotz egiten duenez, ez du lorategian lanik egiten Juan Brunok, eta etxe barruan txapuzak egiten entretenitzen da. Hala ere, prestatuta dauka eguraldi ona hasten denerako materiala, txapak moztuta, eta erruberetako zuloak eginda. Beraz, eguraldia epeltzen hasten denean, hantxe ikusi ahal izango dugu Juan Bruno, bere lorategian esku lanak egiten.



# Plaza Txikia herritarrentiat libratzeko proposamena egingo dio Einbiouk Udalari

## Programaren helburu nagusia herritarrak kontuan hartzea da

Einbiou Herri Plataformako kideek "beste Elgoibar bat posible dela" adierazi zuten joan zen asteartean, maiatzaren 4an eskaini zuten prentsaurrekoan: "Herritarrak kontuan hartuko dituen herria da gure helburua". Ildo honetatik ezarri dituzte, beraz, udaletxean aurkeztuko dituzten proposamenak.



### Plaza Txikia libratzea

Einbioukoek esan zutenez, "Plaza Txikia beti izan da herri erdian jolasteko, egoteko edo ibilizeko gunea. Azken urte hauetan, kotxeak direla-eta, ohitura hori galdu egin da, eta hilean behineko feria bakarrik mantentzen da". Hau guztia kontuan izanik, Einbioukoen herri programaren lehenengo helburua Plaza Txikia herritarrentzat libratzea da. Hasteko asteburuetan bakarrik. Hilean behin egiten den bezala, Einbiouk uste du posible dela asteburuero eremu hori aisialdirako libratzea. Etorkizunari begira, Plaza Txikia betirako libratzea da beraien planteamendua.

### Non aparkatuko dugu?

Einbiouk egindako ikerketaren arabera, trafikoaren ordenamendu sinple batekin, epe motzean Plaza Txikiko kotxe guztiak beste toki batzutan aparkatu ahal izango dira. Ondorengo Iau puntuetan laburtzen dute 40 edo 50 aparkaleku irabazteko modua:

I. Herri Erdirako sarrera Madalako zubitik izatea, eta San Frantzisko edo Pedro Muguruza kaleetan dagoen bezala, Bernardo Ezenarro kalea ere, norabide bakarrekoa izatea, Osasun Zentroko errotondara arte.

2. Norabide bakar hau, Osasun Zentrotik gora, Sigmako zubi berriko errotondara arte luzatu.

3. Eroski berri aurrean aparkalekuak baterian jartzea kotxe gehiagorentzat lekua izanik (kalea norabide bakarrekoa izanik, karril bakarra nahikoa da kotxeak pasatzeko).

4. Bernardo Ezenarro kale ertzean aparkalekuak egitea (Osasun Zentrotik gora doan kale ertzean).

# Igor Irigoyen Fuentes, EB-IUko zinegotziak bere kargua lagako du

## Unai Zulaika e!goibartarra izango da EB-IUko zinegotzi berria



*Igor Irigoyen eta here ordezkoa, Unai Zulaika*

Joan zen apirilaren 30ean izandako Udal Plenoan Igor Irigoyen EB-IUko zinegotziaren kargu uztea tratatu zen. Igor Irigoyen, martxoaren 14ko hauteskundeetan Kongresurako Hautagaia izan zen Bizkaitik. Gaur egun Eusko Jaurlaritzan ari da lanean, eta Elgoibarren ez bizitzea, bere zinegotzi lana betetzeko arazo handia dela azaldu zuen: "Arrazoi pertsonalak eta laboralak izan ditut kontuan erabaki hau hartzeko. Zaila egiten zait nire zinegotzi betebeharrak aurrera ateratzea eta Eusko Jaurlaritzan hasi dudan lanarekin uztartzea. Gainera, Elgoibarren ez bizitzeak zailtasunak areagotu besterik ez ditu egiten".

Igor Irigoyenek eskerrak aman zizkien Udalbatzarreko gainontzeko kideei: "Udal korporazioko kideak eta Iangileak eskertu nahi ditut, eskaini didaten laguntzagatik eta izan ditudan zailtasunak ulertu dituztelako".

### Unai Zulaika bere ordezkoa

Udalbatzarrak Unai Zulaikari ongi etorria eman zion, bera izango baita EB-IU Alderdiko zinegotzi berria. Unai Zulaika ezaguna da herrian, C.D. Elgoibarko jokalari aipagarrienetariko bat izanagatik. Burokrazia dela-eta, pare bat hilabete pasatu beharko dira Unai Zulaika zinegotzi izendatu arte.

## Lau elgolbartar Frantziako Bapaumeko espetxera egin zen martxan izan ziren



Sakabanaketa politikaren aurka eta euskal preso politikoak Euskal Herriratzeko Bapaumeko espetxera egin zen martxan hartu zuten parte lau elgoibartarrek. Espainiar eta Frantziar estatuan urrutien dauden espetxeetara (1100-1300km gutxi gora behera) egin zuten bisita. Beraiek azaldu digutenez, "martxa sinbolikoa izan bada ere, ezin da ahaztu bidai berbera astero-astero egiten dutela ehundaka senide eta lagunek, 700 presotatik 8 bakarrik baitaude Euskal Herriko espetxeetan".

Apirilaren 23an, ostiralean, Elgoibartik irten eta bi estatuen arteko mugan espainiar poliziak gelditu eta frantziarrak autobuseko kide guztiak identifikatu ostean, larunbat goizean iritsi ziren Frantziako Bapaumeko espetxera. Bertan Agurtzane Delgado euskal preso politiko ermuarra eta "Frantziar Ekintza Zuzena" taldeko beste pare bat lagun daude. Inguruko malda batetatik ekitalditxo bat egin zen. Arratsaldeko 19:00ak aldera berriro autobusa hartu eta beste mila kilometro egin ostean etxeratu ziren.

## EHNA ateratzeko aukera berria maiatzaren 15ean



EHNA (Euskal Herriko Naziotasun Aitormena) ateratzeko aukera berri bat izango dute elgoibartarrek datorren maiatzaren 15ean, zapatuan. Plaza Handian egongo da EHNA ateratzeko mahaia 11:00etatik 13:30era. Beharrezkoa izango da: erroldatze ziurtagiria, 15 euro eta hint argazki aurkeztea. EHNAko Elgoibarko arduradunek jakinarazi digutenez, 560 herritarrek atera dute jadanik naziotasun aitormen agiria. Bestalde, EHNA erabiltzera animatu nahi dute jendea. Horretarako, dendaz-denda ibili dira eta orokorrean ez dagoela agiria erabiltzeko trabarik ziurtatu digute. EHNA arazorik gabe onartzen duten denda eta komertzioek hala adierazten duen pegatina bat izango

## Etxetik egiten diren erosketetan herritarrek dituzten eskubideak jakinarazteko informazioa kaleratu da

Kontsumitzailearen Informaziorako Bulegoak eta Udaltzaingoak txosten informatibo batzuk kaleratu dituzte, etxetik erosten duten herritarreei beraien eskubideak jakinarazteko. Besteak beste, erosketa kontratua sinatu aurretik ondo irakurri behar da, eta erosketaren prezioa egiaztatu behar da. Bestalde, ondo pentsatu behar da, produktu hori benetan behar dugun edo ez. Kontratua sinatu ostean, erosketa baliogabetu nahi bada, zazpi eguneko epea dago. Egun horiek pasatu ostean, ezinezkoa izango da erosketa baliogabetzea.

Informazio gehiago nahi izanez gero, Merkatu Plazan dagoen Kontsumitzailearen Informaziorako Bulegora joan daiteke, edo 943 74 30 88 telefonora deitu.



## laguneak ikastaro herriak antolatu ditu maiatzerako

Elgoibarko laguneak ondorengo bi ikastaroak antolatu ditu maiatzerako: Ordenagailuaren oinarrizko erabilera ikasteko, IT Kzgunea ikastaroa. Besteak beste, ordenagailuaren erabilera, nabigazioa, bilatzaileak, posta elektronikoa, Outlo.ok Express-aren konfigurazioa eta erabilera eta bideokonferentzia ikasiko dituzte bertan. 20 orduko ikastaroa izango da, eta maiatzaren 3tik 14ra (1 8:00etatik 20:00etara) eta maiatzaren 31tik ekainaren Ilra (16:00etatik 18:00etara) eskainiko da. 50 urtetik gorakoentzat 10 orduko Nagusiweb ikastaroa izango da, maiatzaren 17tik 21era, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara. Ikastaro honetan ordenagailuaren erabilera, nabigazioa, bilaketak, posta electronikoa, txata.., irakatsiko dira.

Bestalde, ondorengo lau mintegiak eskainiko dira: "Itsasoan murgil zaitez" (maiatzaren 5ean 17:00etatik 18:00etara), "ardoa ezagutu" (maiatzaren 1 3an 16:00etatik 18:00etara), "Postal bat bidal ezazu" (maiatzaren 24an, 17:00etatik 18:00etara), eta "Irudi digitalen tratamendua" (maiatzaren 25etik 28ra, 18:00etatik 20:00etara).

Azkenik, 16 urtetik gorakoek dohainik nabigatzeko aukera daukate.

## Bidezko Merkataritzaren denda maiatzaren 13an

Maitzaren 13an, eguenean, Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatuko da mundu guztian. Elgoibarren, Parrokiko Misio Taldeak hartu du eguna ospatzeko ardura eta kalera irtengo dira bidezko merkataritzako produktuak saltzera. San Frantzisko iturriaren aurrean jarriko dute denda goizeko 9:00etatik 13:00etara. Bertan, arroza, makarroiak, kafea, txokolatea eta beste hainbat produktu aurkitu ahal izango dira. Eguraldi txarra egingo balu, King-Kong azpian egongo litzateke denda.

2004-V-7

## Ilrtebetean puntu bidezko gidabaimena martxan jarriko dela iragarri du Espainiako Barne Ministroak

# TRAFIKO ARAUAK ERRESPETATU ETA ISTRIPUAK GUTXITZEKO BALIOKO AL DU?



### TEODORO MARCILA

**33 urte, lorezaina**

Bai, honelako zerbait jarri beharra dago, jendeak arauak gehiago errespetatzeko. Jendea oraindik kontzentziatu gabe dago, eta hori oso arriskutsua da.

### KONTXI IRIONDO

**49 urte, administraria**

Egunkarian irakurri dudanez, Alemania eta Frantzian funtzionatu du, beraz, hemen ere onerako izango da. Gazte jendea zoroen pare ibiltzen da, eta beharrezkoa da honelako zerbait j artzea.





### IZASKUN ARANIBURU

**44 urte, autoeskolako irakaslea**

Uste dot baietz, Frantzia eta Alemanian martxan dao, eta istripuak gutxitu ein dia. Neurrixak gogortzea onerako izango da. Batzutan bildur apur bat sartzia ona izaten da.

### ASIER GOITANDIA

**29 urte, grabatzailea**

Ez dut uste, jendeak berdin jarraituko du. Beharbada hasieran efekturen bat izango du, baina gerora ez. Proba egitea ondo dago, baina ez dut uste irtenbide ona izango denik.





### JUAN URREZTI

**50 urte, forjako langilea**

Nire ustez bai, metodo berri honekin, jendia kontu haundixauakin ibitiko da kotxian. Istripuak gutxituko diala uste dot. Arauak gogortzea irtenbide ona izan leike,

### JUANITA ALTUNA

**43 urte, etxekoandrea**

Ez zait modurik onena iruditzen. Egunero kotxea behar duenak, edozein despiste izan dezake, eta oso gogorra da puntuak kentzea. Beste metodoren bat bilatu behar da.







Se9ad Ehundaka trofeo

TAAPELAK, GARAIKYRRAK, DoMINAK ETA elYIENALEMETARAKo PLAKAK

LAGVNARTEKo TXAPELKETAK
HERRI KIRoLAK
JAIAK
EZKoNTZETARAKo cRoiGARRIAK

Mugikorra: **635 73 86 54**
BAILIBAR BASERRIA San Anlolin auzoa (Aulopi$Faren pecijearen oncloan)

**ELGOIBARKO WING TSUN (KUNG-FU) TAIDEA**

WING TSUN (KUNG-FU) Elgoibarko kiroldegian ikasi eta entrenatu dezakezu
(astearte eta ostegunetan) 19:00 - 20:30
- Defentsa pertsenaleko klaseak, emakumeentzako bereziak Prestakuntza iisikoa
- Arrnen kontako defentsa (laban, makil,..)
- Osasuna WING TSUN-aren forma eta entrenamenduen bidez

3 hilaneterm WING TSONaren irakaslo onenek klaseak emango dituite.

44.4tra zall-ez/

# Pilar ikastetxeak sei urtez gutxienez irekita jarraituko du

## Gurasoen eta irakasleen lanak, Gipuzkoako Hezkuntza Sailaren laguntza lortu du

Joan zen ostiralean, apirilaren 30ean, jakin zuten Pilar Ikastetxeko gurasoek Gipuzkoako Hezkuntza Sailak beraien proiektua onartu egin zuela, eta ondorioz, ikastetxeak sei urtez gutxienez irekita jarraituko cluela.

Pilar Ikastetxearen itxiera albistea ezagutu zuten momentutik, guraso eta irakasleak irtenbide baten bila hasi ziren. Gipuzkoako Hezkuntza Sailarekin jarri ziren harremanetan, eta aurrera jarraitu ahal izateko proiektu bat prestatu zuten. Bi hilabete luze pasa ostean, badirudi gurasoek eginiko Iana ez dela alferrikakoa izan.



Pilar Ikastetxea lehengo berbera izango da, eta irakasle guztiak mantenduko ditu, baina jabetza aldatu egingo da, hau da, San Biatorreko Fraileen eskutik, gurasoen jabetzakoa izatera pasatuko da.

### 11. gela

Pilar ikastetxeak 189 ikasle eta 11 gela izango ditu 2004-2005 ikasturtean. Haur Hezkuntzako 14 ikasleak gela batean egongo dira, eta gainontzeko kurtsoetan, maila bakoitzeko gela bakarra izango da. Matrikulazio kanpaina oraindik ez da bukatu, beraz aldaketaren bat izan daiteke.

# Elgoibar Ikastolak Debabarrenako gazteentzako 2. Irratsalo Lehilaketa antolatu du

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Debabarrenako 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzako irratsaio lehiaketa izango da datorren maiatzaren 14an. Lehiaketa honen helburua bikoitza da: Batetik, Bailarako gazteen protagonismoa indartzea nahi da, beren gustukoa den ekintza bat garatzeko aukera emanez. Bestalde, aho adierazpena oro har, eta euskararen ahozkotasuna batez ere bultzatzea, herri hizkerari bere garrantzia ematea, eta gazteleraz eta ingelesez ondo hitz egitea.

Binakako taldeetan banatuta, partehartzaileek 15 minutuko irratsaioa prestatu beharko dute. Gaia librea da, baina ezingo da irainik, erlijiorik edo politika gairik

Sariak ematerako orduan, alor desberdinak izango dira kontuan. Besteak beste, euskarazko esataritza onena, gidoi saria euskaraz, eleanitz saria, irratsaioaren bukaeran egindako gaztelerazko eta ingelesezko laburpenik onenak sarituko dira, eta lehiaketako 3 irratsaio onenak



Radio Eibar Cadena Ser irratian emitituko dira. Lehiaketan parte hartu nahi duten gazteek maiatzaren 10a baino Iehen bidali beharko dute irratsaioaren gidoia Ikastolara.

# Malaysiako Insfitutuko ordezbariak IMHn izan dira

Malaysian Spanish Institute erakundeko ordezkariek IMHko instalakuntzak bisitatu dituzte. Apirileko azkenengo astean izan ziren Elgoibarren, eta IMHko proiektuak ezagutzeko aukera izan zuten. Contes-IMHk Malaysiako ikastetxea zuzentzen du. 3 pertsona ditu bertan: zuzendari ordea eta bi aditu industrial (mekanikoa eta elektronikoa). Bestalde, erregulazioa eta kontrolean eta molde eta trokelen fabrikazioan adituak diren bi lagun gehiago ari dira bertan lanean.



Espainiako eta Malaysiako Gobernuen arteko hitzarmenaren arabera, Malasiar-Espainiar ikastetxea martxan jartzen eta asistentzia teknikoa ematen parte hartzen du Contes-IMHk.

# Jende ugari bildu zen Kiribilka programaren barruan antolatutako txotxongilo emanaldian

Kiribilka programaren barnean, txotxongilo emanaldia izan zen joan zen apirilaren 30ean Plaza Handian. 100 haur baino gehiago bildu ziren udaletxeko arkupeetan, eta oso gustura egon ziren, denak isil-isiIik eta txotxongilo saioari arreta jarrita. Irrintzi txotxongilo taldekoak eta Kiribilka programako arduradunak oso pozik gelditu ziren jendearen erantzuna ikusita.



# APIRILA

2004-V-7

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren @topagunea.com helbide elektronikora.

## JAIOTAKOAK



Yune Muñoz
Liberal,
apirilak 7,
Chanpi eta Yoli,



Xabier Arriola
Leyaristi,
apirilak 7,
Xabier eta Arnaia



Nalaya Almenara
Bruno,
apirilak 9,
Roberto eta Sonia



Aitor Altzerreka
Odriozola,
apirilak 16,
Roberto eta Lurdes

Paula Fernandez
Gonzalez,
apirilak 15,
Jose eta Beatriz



Martin Del Rey
Eizagirre,
apirilak 19,
Francisco eta
Marta



Unax Esnaola
Idiakez,
apirilak 21,
Zigor eta Erkuden

Olaia Aizpitarte
Arrizabalaga,
apirilak 4,
Juan eta Maria

Elia-Maria Gomez
Rodriguez,
apirilak 22,
Constantino eta
Cristina

## HILDAKOAK

Marta Soraluce,
81 urte, apirilak 4

Eugenio Mugica,
84 urte, apirilak 21

Maria Juaristi,
92 urte, apirilak 22

Ines Ciarb,
92 urte, apirilak 25

## EZKORITZAK

Aitor Viñaras eta Alicia Gomez,
apirilak 17

Angel Zubiaurre eta Elisabeth Muñoz,
apirilak 24

Bruno Martins eta Mirtia Avila,
apirilak 24


ETXEBERRIA

riileta zeroitzua
OSOA eta 24- r'`191 7)UKOP,

*KUTXAK TRASLADOAK .KOROAK*



NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.

**Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 .56
(Mobila) 608 77 07 01

# Natxo de Felipe

## Oskorri toldeko kidea

***Natxo de Feliperen tritziz, edozein kirol bezala, musika eta kantua praktikatu egin behar dira eta hala ez bada nekez egingo dira ondo. "The Pub Ibiltaria" Ikuskizuna jendeari parte bartzeko egiten zaton gonbitea edo probokazioa da. Elgoibarrera maiafzaren 14an iritstko dira, eta elgotbartarron kanturako yrina asetzea izango da euren helburu nagusia.***

**Zein da "The Pub Ibiltaria" ikusklzunaren filosofia?**
Musika praktikatu, instrumenturen bat jo edo kantua gogoko duten guztiekin egiten dugun lagunarteko parranda egitea. Nik uste Elgoibarren oso ondo ulertu duzuela. Horrekin batera, kantuaz eta musikaz disfrutatzeaz gain, erdi gaiduak zeuden hainbat kantu guztion memoria kolektibora ekartzea bilatzen dugu.

**Zein dra "The Pub Ibiltaria 8" ikuskizunaren berezitasunak?**
Beti saiatu gara Euskal Herri osoko kantuak biltzen eta era guztietakoak: lasaiak, ganberroak, modernoak, zaharrak... 8. disko honekin kontuak atera genituen eta guztira 141 kantu bildu ditugu 8 urte hauetan. Hortaz, errepertorio eder hori dagoen bitartean oraindik pare bat edo hiru urtez jarraituko dugu. Egon, milaka kantu daude, baina denak ez dira koadrilan kantatzeko modukoak eta ikasteko errazak.

**Leku guztietan lortzen al duzue publikoaren parte hartzea?**
Giro polita eta parte hartzea toki guztietan izaten dugu. Ikusle kontzeptua desagertu egiten da, denak dira aktore, artista, alegia. Benetako artista publikoa da.

**Metroan edo kale bazterrean rnusikarako alperrik galdutako talentu asko al dago?**
Asko. The Pub Ibiltariarekin hauxe demostratu nahi dugu, praktika artistikoa demokrazitatuz gero, jende guztia musika eta gauza asko egiteko gai defa, alegia.

**Nola gustatuko Litzaizuke Oskorri gogoratzea hemendik 25 urtera?**
Jendeak Oskorri bere kreazioengatik gogoratuko duela uste dut. Gure diskoak dira hor geratuko direnak. Jendeak noizbait gogoratzen baidin bagaitu, urte luzetan eta kantu asko eginaz egon zen talde moduan izatea gustatuko litzaiguke.



**eakidatien da Natxo de Feliperee bizar aijeae?**
Pertsona optimista xamarra, kaskagorra eta buruzabaLa, hau da, iritzi guztiak ulertzen saiatzen dena.
**MadikarlW gabeke**
Ezinezkoa, historiaurretik baŁtatorkigu.
**Nelake sele kaada izange luke zure bidtza azaltree duen biletak?**
Musika barrokoa. Bach-ena esaterako.
**dhera sarw alirrela egden duten alken gaval**
Zer edo zer irakurtzea
**illiii`1131111111.0110 19 ki bal?**
Letrarik gabe Euskal Herrian kantatzen den eder bat dago
Itukurrukuttunkuttunkullunkuttunaa...
**leren usainak gegera aratten havrizarea?**
Ogi egin berriaren usainak.
**Mosika Instrumenki bat?**
Garrantzitsuena giza boza da. HortLk datoz beste guztiak.
**44) prindeales ala fnsKadl Gailea?**
Derrigorrez aukeratu behar izatekotan, nahiago euskaraz.
**Gesteko irrah saie bat?**
Ez dut irrati edo telebista asko entzuten, baina esaterako Olatz Sugastik Euskadi Irratian egiten duena.

## "Kantua gustuko duten lagunarteko parranda sortzen saiatzen gara"

IRAKASLEARI AZTERKETA

## ALBERTO

LH 1 MAILAKO IRAKASLEA



— **1 `Ikasle garaian egiten al zenuen txuletarik?**
Bai, noizean behin, ikasle guztiek bezala.

— **Zergatik irakasle?**
Betidanik gustatu izan zaizkit umeak, eta lanbide egokia iruditu zitzaidan.

— **3) Irakasle on bat izateko garrantzitsuena?**
Pazientzia, dudarik gabe, eta lanbidea gustatzea.

— **Azterketetan jaso duzun erantzunik bitxiena?**
Normolean soinketa irakasten dut, beraz, ez zait tokatu erantzun bitxirik.

— **nbid e honen alderik gogorrena?**
Zaila da umeak nola tratatu behar diren jakitea.

- **Klase birtualak ordezkatuko al du irakaslea?**
Espero dut ezetz. Harremana galduko litzateke.

— **7 ikasleak zigortuz zuzentzen ikasten a1 dute?**
Batzuk. Bakoitzak bere neurriko zigorra behar du.

— **8 Ikasleak kopiatzen harrapatuz gero?**
Igo mailan ez dago azterketarik, baina hizketan badaude isiltzeko esango nieke, eta bwieto gordetzeko,

— (5' **Etxeko lanak egiten ez dituztenean, zein arrazoi ematen dizkizute?**
Eginda dauzkatela esaten dute beti, baina etxean ahaztu zaizkiela.

# NOLAKO ENBORRA... HALAKO EZPALA



**ANA CASOOERO**
**ama**

1. **Zein** da ikusi duzun azken pelikula?
2. Zer da amaz/aiabaz gehien gustatzen zaizuna?
3. loteria tokatuz gero, zer egingo zenuke?
4. Amarekin/alabarekin izandako azken errieta?
5. Gustuko janari bat?
6. Zein da amari/alabari egin diozun azken oparia?
7. **Eixea** sutan balego, zer salbatuko **zenuke?**
8. **lanpara** magikoa aurkituz gero, zein hiru desio eskatuko zenituzke?



**GARAZI OSORO**
**alaba**

**1** "Cuando menos te lo esperas"
**2** Oso maitakorra dela.
**3** Ametsak bete, eta bidaia bat egin.
**4** Oso berandura arte egoten da esna eta hasarratu egiten gara.
**5** Barazki menestra
**6** Gona bat
1 Lehenengo pertsonak, eta gero objektuak.
**8** Lehenengo osasuna, eta gero maitasuna eta dirua

"Doce en casa" I
Etxeko lanak egiten laguntzen didala **2**
Eixe berri bat erosi, baina Elgoibarren **3**
Gauero, Irakurtzen geratzen naiz, eta amak pelmada ematen dit **4**
Arrautza frijituak **5**
Eraztun bat **6**
Game boy-a **7**
Gerra gehiago ez egotea, Realak partiduak irabaztea **8**
eta mutilek gelako atetik Athletic-eko himnoa kentzea

# Txiki inkesEa

## Zertarako balio dute banketxeek?

### 6 urte Ion Guill0



Hor dirua gordetzen da, lapurrek ez lapurtzeko. Gero nahi duzunean txartelarekin ateratzen da.

### 7 urte Iraltz Gonzalez



Dirua gordetzeko balio dute banketxeek eta gero, nahi dugunean, dirua ematen digute.

### 9 urte Ione Makazaga



Dirua aurrezteko, gordetzeko eta bakarrik behar duzuna ateratzeko balio dute banketxeek.

### 9 urte Pello Errazti



Dirua gorde, finantzatu eta prestatzeko, gero pixkat gehiago bueltatzeko baldintzarekin.

## Zein da egin duzun azken gaiztakeria?

### Aritz Larruskain 1 urte



Beti lagunekin hasarratzea.

### Mikel Garate 8 urte



Tinbre bat jo, eta gero esan "abuela"...

### Amaia Arregi 8 urte



Orri garrantzitsu bat hartu, eta goitik behera dena margotu.

### Garazi Ayesta 9 urte



Amari ezpainak pintatzekoa ezkutatu eta ikastolara ekarri lagunei inbidia emateko.

# Paristik natorren *artista bat naiz ni...*



**Alba Zangitu L.H. 5. maila - Piiar Ikastetxea**

Olerkia

Aufoz Pari,shie eforri, n
jendea oso ona zen.
niusdea 9usiuko zuten
aurrean *geratzen* ziren
b efa clanfzan egaen zufen
barla fxanfonak botafzen.
Han jendeak gusfuito ni,nduen
efa fxatofzen zUlafen.

## lehiaketa lehisakeka lehickeka lehiaketa iehickeiti lehi

*Zer* dago faltan, soberan edo aldatuta?







Aurreko lehiaketako irabazlea: **Maialen Galiastegui**

**Erantzuna:** ..........................................................

..........................................................................

**Izen abizenak:** ................................................

**Telefonoa:** .........................................................

SARIA Elhuynr-ek eskoinitako mahai iokoa
("GiPuiKaA ZURE ESKU" MAHAI JOKOA + CD-ROMel)



